

JOSÉ JOAQUÍN FERRER

1763-1818



JOSE JOAQUÍN FERRER

Jose Joaquin Ferrer itsagizonaren ibilbideak Ilustrazioak itsasoan izan zuen zientzia ezaugarriak argi erakusten du. Batez ere, astronomia aditu bikaina izan zen, eta bere lana beste espezialista batzuk egin zituzten ikasketa nautikoen oinarria izan zen. Godoy ministroaren erregimen autokratikoaren aurkako jarrera politiko zuzena zuenez ez zen Trafalgarren egon, eta 1805ean Estatu Batuetan zegoen. Ilustrazioko armagizonek izandako porrotaren eta gizarte zibila ilustrazioarekin jarraitzeko zuen ezintasunaren ordezkari da. Ferrer Pasai Donibanen jaio zen eta gazte-gaztetatik matematika, kosmografia eta nabigazioa ikasi zituen. 1780an Mundu berriko etorkizun oparoaren bila Caracaserantz abiatu zen *Real Compañía Guipuzcoana* konpainiaren ontzi batean, baina Rodney almirante britainiarraren flotak ontzia harrapatu zuen. Libre geratu ondoren Pasai Donibanera itzuli zen eta pixka bat geroago Limarantz itsasoratu zuen. Hortik aurrera lan handia egin zuen geografia eta astronomia karta garrantzitsuak eginez eta neurtuz. Horrela, Jalapa, Perote eta Orizaba mendi-tontorrek aztertu zituen. Mazarredoren Armadak suspertutako zientzia espedizioetan nagusitzen zen joera intelektualari eusten zion, eta Itsas armadako beste zientzia gizon askoren laguna izan zen, bereziki Kosme Txurruka eta Dionisio Alcalá Galiano bere lagun minak izan ziren. Hala ere, lehen aipatu dugun Godoy ministroaren aurkako jarreratik zein oraindik Kotsul baino ez zen Bonapartek Europan zituen handinahiek eragiten zioten mesfidantzarengatik, 1801ean sortu berriak ziren Estatu Batuetara joan zen. Bertan bere karrerako lan garrantzitsuenetariko batzuk idatzi zituen, besteak beste 1804an idatzitako "*Astronomy Observations for determining the geography position of various place in the United States*" lana. Trafalgarren ondoren eta Atlantikoa zeharkatzeko gaitasun behar ziren arriskuak ikusirik, Errepublikari berri horrek zituen behar nautikoei eta geografikoei erantzuten saiatzea erabaki zuen. Eta horretan jardun zuen frantsesak 1813an penintsulatik behin betiko irten ziren arte. 1817an Bilbon ezarri zuen bizitokia, eta politikatik bazterturik "*Real Sociedad Vascongada*" elkartearen kide izan zen. Hiri horretan hil zen Ilustrazioko azken ordezkari eta zientzia ikerketa berriko aitzindari gisa.

El sesgo más científico de la Ilustración en el mar es posible representarlo a través de la figura de José Joaquín Ferrer. Se le recordará ante todo como astrónomo, cuyos grandes conocimientos sirvieron además para los estudios náuticos de otros especialistas. No participó en Trafalgar, pues su pensamiento político le había enfrentado directamente con el régimen autocrático de Godoy, hallándose durante 1805 en los Estados Unidos. Se muestra por tanto como el contrapunto perfecto al hundimiento de la "Ilustración de los guerreros" y a la difícil continuidad de la "Ilustración civil". Ferrer nació en Pasajes de San Juan y desde joven comenzó a estudiar matemáticas, cosmografía y navegación. En 1780 puso rumbo a Caracas dentro de un buque perteneciente a la Real Compañía Guipuzcoana con objeto de hacerse un porvenir en el Nuevo Mundo, pero el navío fue apresado por la Flota británica del almirante Rodney. Tras su liberación, volvió a Pasajes para embarcarse al poco tiempo con destino a Lima. Desde entonces comenzó una formidable labor que le llevaría a mensurar y trazar mapas geográficos y astronómicos, reconociendo los picos de Jalapa, Perote y Orizaba. Se incorporó así a la corriente intelectual de las expediciones científicas promovidas por la Armada de Mazarredo, entablando amplia amistad con los hombres de ciencia de la Marina, especialmente Cosme Churruca y Dionisio Alcalá Galiano. No obstante, en 1801 se trasladó a los recién creados Estados Unidos, tanto por su desacuerdo con los designios del referido Godoy, como por el recelo que le provocaban las ambiciones del todavía Cónsul Bonaparte sobre Europa. Allí gestó algunas de las mejores obras de su carrera, como el caso de *Astronomy Observations for determining the geography position of various place in the United States* (1804). Después de Trafalgar decidió, ante el riesgo de cruzar el Atlántico, continuar trabajando para las necesidades náuticas y cartográficas de la joven República, llevando a cabo esta función hasta el final de la expulsión francesa de la Península en 1813. Se instaló luego durante 1817 en Bilbao, al margen de la política, siendo miembro de la Real Sociedad Vascongada. Falleció en aquella ciudad en 1818 como último vestigio de la Ilustración y primer antecedente de la búsqueda científica contemporánea.

The greatest scientific attitude concerning the sea in the Enlightenment can be seen in the figure of José Joaquín Ferrer. He will always be remembered as an astronomer, whose great knowledge also contributed to the nautical studies of other specialists. He did not take part in the Battle of Trafalgar, as his political ideas had placed him in a position of confrontation with Godoy's autocratic regime and, in 1805, he was in the United States. He can, therefore, be considered the perfect counterpoint to the sinking of the "Enlightenment of the warriors" and the difficult continuity of the "Civil Enlightenment". Ferrer was born in Pasajes de San Juan and since an early age began to study mathematics, cosmography and navigation. In 1780 he set sail for Caracas onboard a ship that belonged to the Real Compañía Guipuzcoana with a view to making a living in the New World, but the ship was captured by the British Fleet of Admiral Rodney. After being set free, he returned to Pasajes, although he soon sailed for Lima. Since then, he embarked on a formidable task that led him to measure and draw geographical and astronomical maps, exploring the peaks of Jalapa, Perote and Orizaba. He, thus, connected with the intellectual trend of the scientific expeditions promoted by Mazarredo's Navy and became good friends with men of science from the Navy, especially Cosme Churruca and Dionisio Alcalá Galiano. However, in 1801, he moved to the newly created United States, in part due to his disagreement with Godoy's plans and because he regarded the ambitions of the then Consul Bonaparte on Europe with suspicion. While there, he wrote some of the best books of his career, such as *Astronomy Observations for determining the geography position of various places in the United States* (1804). After Trafalgar, he decided, given the risk of crossing the Atlantic, to continue contributing to the nautical and cartographic requirements of the new Republic; a task he performed until the French were finally driven out of the Peninsula in 1813. He moved to Bilbao in 1817, where he was a member of the Real Sociedad Vascongada (Royal Basque Society) but did not intervene in politics. He died in that city in 1818 as the last vestige of the Enlightenment and as one of the first figures of contemporary scientific research.